

Kurduak Gasteizen biltzearen aurkako errekurtsua kendu du Madrilek

■ Konstituzionalari gaia azter dezan eskaera egitea pentsatzen ari da Jaurilaritza ¥ 11

## politika

■ Jose Maria Aznarrek desafiotzat jo du Hautetsien Biltzarra eratzea ¥6

■ EAJ eta Ehrentzat, euskal herritarrak batera aritzeko erakundea da Udalbiltza ¥7

## gizartea

■ Euskal Herriko unibertsitario gehienak ikasturte berriari ekiteko prest ¥15

■ 'Biescas kasuko' ikerketa behin-behinean artxibatzea eskatu du Huescako fiskalak ¥19

## ekonomia

■ UGT eta CCOOrekin «mugagabeko batasun sindikala» eratzeko prest azaldu da LAB, Hego Euskal Herri osoari badagokio ¥20

■ Espainiako Gobernuak lanorduak murizteko errekurritu legea defendituko duela esan du Nafarroako lehendakariak ¥21

## mundua

■ Richter eskalan 7,6 graduko lurrikara izan da Taiwanen ¥26

## kirola

### ■ Saskibaloia

Bosna Sarajevoren aurka jokatu du gaur Tauk, Europako lehiaketako lehen partiduan ¥31

## kultura

■ Ehun kontzertutik gora eta Amerikan zehar bira bat egingo ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak denboraldi honetan ¥36

## Itoizko urtegia

# Nafarroako Gobernuaren agiri batek presa arriskutsua dela berretsi du

*Koordinakundeak aurkeztu du Gobernuak argitara eman gabeko azterketa geologikoa*

■ NAFARROAKO Gobernuak duela hamar urtetik esku artean duen Itoizko urtegiko azterketa geologikoaren txostenaren arabera, urtegiko presaren ezker aldeko oinarri den mendi-hegian lerradurak

izateko arriskua dago. Urtegia beteta lerradurarik gertatuz gero, presaz haratagoko herrietan 'aurrekaririk gabeko hondamendia izanen litzateke'. Hori salatu zuen atzo Itoizko Koordinakundeak. Hain-

bat traba administratibo gainditu eta gero, Espainiko Ingurugiro Ministeriotik lortu du agiri hori. Agiria osorik jaso ote duen zalantza du taldeak, bertan aipatzen den 'ondorioak' atala ez baita ageri. ¥ 13

CHARLES DHARAPAK / AP



## Nazioarteko lehen indarrak Dilin

■ NAZIO BATUEN aginduetara dauden indarrak (Interfet) Dilira iritsi ziren, eta hiriburua erabat hondatuta aurkitu zuten. Hango goizeko zazpitan (goizaldeko ordu bata Euskal Herrian) heldu ziren, itsasoz. Lehorreratu bezain laster, kontrolpean hartu zituzten portua, aireportua eta Ekialdeko Timorko hiriburuko kaleak.

Soldaduak hiriburuan dabiltzan paramilitarrak gelditzen eta armak kentzen hasi ziren, eta inork ez zien aurre egin. Indonesiako Armadaren laguntza ere erabatekoa izan zen hedatze lanetan. 2.300 soldadu iritsi ziren Dilira (australiarrak, britainiarrak eta zeelandarrek). Hurrengo egunetan helduko dira gainontzekoak.

¥25



EDURNE KOCH

## Alberto Sordi zinemagilea omendu du Zinemaldiak

■ Sigourney Weaverrek eta Madeleine Stowek beren azken lanak aurkeztu dituzte

¥ gehigarri berezia